

Eliz atarian punttuka

Sentsibilitate poetikoak euskal literaturaren hastapenetan

Patxi Salaberri Muñoa

UPV/EHU

Laburpena

Inoiz fruitu idor samarrekoa bada ere, betidanik izan da jolas lirikoa Asaba Zaharren baratzean tentu handiz zaindu den landarea. Haren sus-trai hezeak izan dira letrak eta generoak luzaroan elikatu dituzten horieta-koak eta menturaz etorkizuneko literatur aletegiak ere ziurta ditzaketenak. Horregatik, on eta egoki izan daiteke noizik behin gutxienez zeharbegiratu bat egitea hari, landare guztien artean bera baita —hala-holako espiritu erromantiko batzuk baizik erakartzen ez duelako edo— ahulena eta erraz zimeltzekoa. Ondoko lerrootan, haren adartxo baina ez diren behialako sentsibilitate poetikoak eta protagonistak izango ditugu ikusmiran, esan bezala, gure literaturaren lehen hari-muturrak mikorriza gisako hartan sendotu baitziren aurren-aurrenik. Erantsi beharrik ez da: poemak eta bert-soak halabeharrezko aterpe, doi-doi egin ahalko zaio aurre punttuka ari-tzeko tentazioari.

«C'est le Poëte Basque? Ah! L'on m'en a parlé,
Il nous divertira, c'est un écervelé,
Qui dit qu'il veut paroître & qu'enfin il se lasse
De voir que nos Auteurs president en Parnasse,
Et que les meilleurs sont des ignorans heureux
qui ne meritent pas, dit-il, qu'on parle d'eux»

R. Poisson, *Le Poëte Basque* (1668)

1. «Idazleetan, **Bernart Etxepare** da nik aurrez aurre ezagutu nahi nu-keena» —bota zidan supituki lagun gipuzkoarrak Araban burututako nafar giroko afari baten erdian, inguruko jendeak *Kontrapasa* kantatzeari ekin zion unean. «Zeruan aingeru bilakaturik otoizten balego ere —erantsi zuen gero irribarre maltzur batekin—, huraxe baita guztien artean kitzikagarriena nire-tzat».

Ondo baina hobeto ezagutzen du lagunak gure literatura, haren albeni-al-bainuak zeharo baztertzeko erabakia aspaldi hartu zuen arren.

Baina oraindik ez dut argi ustegabeko hitzen oldarra ala haren begi beltzen distira izan ote zen segituan keinu irribarretsu batez baieztatzen eraman ninduen. Erakargarrienen artean azaltzen baitzait neuri ere sarasketarra, nahiz eta ez nukeen horretarako arrazoi berezirik asmatzen jakingo, arrunt-arruntak baizik, *Sautrelaren* soinupean lagunak eta biok harilkatu genituenen ildokoak.

Objektiboki, letra idatzien aroa ireki zuen gurean, basa huts edo genuen hizkuntzari tornu egokia emanaz.¹ Eta xamurtasun ahaztezin batez ireki, bestalde. Baina ez hori bakarrik, paper inprimatuaren mundua ere ezagutarazi baitzion mintzaira hari; xume-xume ezagutarazi, gainera.

Eta alaitasun gaindiezin batez estreinatu zituen hegatsa eta tintontzia. Eta kalera, plazara, mundura, mundu guztira... bidali zuen zokoratutako hizkuntza madarikatu hau-hura; eta kulturara, eta dantzara, eta... bidali gintuen gu baskook ere.

Baina ez hori bakarrik, argi eta klar gogorarazi baitzigun geurea baino ez zela haren etorkizunaren ardura, eta alaitasunarena... Eta baskooi besterik ez zegozkigun ardura haietan euskaldun ikasiak eta letratuak ohi zirela axolaga-beenak eta okerrenak ere erakutsi zigun.

Eta berrogeita hamar bat orrialde oparitu zizkigun hizkuntzarekin jolas gintezen eta,aldi berean, hizkuntzarekin jolasten ikas genezan. Eta mintzaira, geurea, geurea, balia genezan.

Eta abesteko gonbita ere egin zigun. Eta hausnartzeko eta solas egiteko gaiak papereratu zizkigun. Eta bizitza den bezala hartzeko plater konbinatua jarri zigun begien aurrean. Eta, bere burua adibidetzat jarritz, gizarte-bidegabekeriaren ondorioak ere erakutsi zizkigun lasaiki. Eta bat bera ere anatemi-zatu gabe, maitasun eta amodioen oihana agertu zigun argiki.

Baina ez hori bakarrik. Zeren eta, hori guztia gutxi bailitzan, elizgizon izateko bokaziorik gabeko edozein poetak ere bereak nahi lituzkeen hamaika koplak —itxuraz— apal (a! «vulgares versificadores» madarikazioaren atzapar luzeak!) utzi zituen paperean zizelkatuturik.

Adibiderako, lizardi-arestiarren kofradia mistokoen gogoko izan litekeen lerroalde ezaguna, *Amorosen gatziguyatik* jaso (1545, D-iferentzia; 55-59 bertso-lerroak):

Ychassoan hur gucia ceruyetan içarra
Oyhanetan içalori lur gucian velharra
Egunari yguzquia gau belçari ilhuna
Lehen faltaturen dira eci hura gugana
Balinetan eguiazqui gu bagaude hargana.

¹ Veneziako enbaxadorea zen A. Navagerok 1528an Euskal Herrian barrena egindako bigaiaz jasotako oharretan adierazi bezala, Hegoaldeko euskaldunek (besteez ez du ezer eranstean) euskara «non la scrivono; ma chi vuole scrivere, impara *Castigliano*, ed in quella lingua scrive» (1563: 1718, 395).

Bost lerroko lauko bitxian enmarkaturik, bertso luze —paradoxikoki— biribilak, herri-errokoak, berdin jainkosa edo jaupalemeren bati zein —honatx poetaren azken miraria!— geure mintzoari berari ere aplika lekizkio-keenak...

2. Egia da Etxepareren bertso horien azken lerroa lelo bilakaturik ondu zezakeela Ziburun jaiotako **Joanes Etxeberrik** ere poema ederrik, eta ez, ezinbestean, hemengo amabirjinari edota hango jainko berdaderoari zuzendurik.

Poesiaren hegoak mozturik jaio omen zen, tamalez, itsas kaio hura, teologo ziburutarra, sarasketarra bezalatsu, ez baitzen Parnasoko poesi ataria zapaltzeko duin, geroxeago etorriko zen literatur kritikari mauletarraren aburuz.²

Bertsogile-antzerik ere ez omen zuen erdietsi doktore saiatuak, ustezko bertsoak —hiru liburu mardulxkatan garatuak— arinki antolatu, oker moldatu eta behar bezalako neurkerarik, errimarik eta estilorik gabe taxutzen igaro baitzuen bizitza.

Generoa ulertzeko begi-orde bereziak, edonola ere, mauletar historialari handiak jantzita zekartzanak. Bi eredu kontrajarriren arteko talka ikusarazten zutenak.

Batek aristokrazia intelektualaren aurreko luzimendurako *tekne* kiribildua omen zuen xede; zinezko artea, nonbait. Besteak, berriz, mintzaira bateko gizatalde arrunta zuen ikusmiran,³ eta bi axola eta erdi zitzaion metro hoskidetuaren zuzena.

Ohaide desberdinekin alaitzen zen lehena; maitasun eternal bakarrera mugatu nahi zuen poztasuna bigarrenak. Gazte-azalkeriak zituen gai bata; gizakiaren salbazioa bezain auzi larriak besteak.

Inguruko hizkuntzetako poesia gorenarekin bat egin nahiak ekarri zuen, bada, lehen orduko kontrarreformista euskaltzaleen bazterreraztea urrezko letretatik. Talkaren ondorioz.

Parametro berrien arabera, Etxeberriren ereduaren bertsorik hoberenak ere ez ziren hitz lanotan idatzi zituen honako lerro hauetatik askoz haratago iritsi:

Berce natione Catholicac mintçatu direnaz gueroztic bere hitzcuntçaz,
mintça gaiten gu ere gueureaz (1627: 1669, 188).

² Hona, frantsesezko bertsiotik ekarriak, Oihenarten hitzak: «tamalgarria da espiritu honek hobetsi izana poesia eta ez prosa, non, zalantzarik gabe, arrakasta handia izan baitzezakeen [...] Epai dezakegu, hortaz, benetako eliz-gizon baten gisara bere lagun hurkoaren probetxurako garrak bultzaturiko idazle bezala, ez handigurak eta bai batez ere karitateak eraginikoa» (1665: 1967).

³ Esquer bada eta aithor/ Duçula berecia/ *Ceren ohoratu duçun/ Herritarren mihia*» idatzi zuen Klaberriak Etxeberriri eskainitako laudorioan (in 1636: 1665, z.g.; gurea da letra etzana).

Kritikari mauletarraren sentsibilitateak ongiegi ulertu nahi izan ez zituen lerroak, bidenabar esateko.

Baina Poissonen poeta bizkaitarrak azpimarratu bezala, «Je suis Poëte, Monsieur, si vous le trouvez bon» (1668: 1687, 6. agerraldia, 208).

3. Agian horrexegatik jaso zuen ziburutarrak laudorio sutsurik mauletarrak donapaleutartu ez ziren inguruko euskaldun (euskal hegaldun, hobe) guztien aldetik.⁴ Esanguratsuenak, ezbairik gabe, **Esteban Hirigoiti** adiskideak —nonbait koplak artistikoki gaitzesgarritan— ondu zizkionak (In Etxeberri 1630: 1645, 9-10):

Nic behintzat aithortcen dut

Çure çordun garela,
Gure illhumbetic khentceco
Çucia çu çarela.

Çaharturic cihoana
Escara erortcera,
Etche berrian sarthuric
Berriz doa sortcera.

Erdaldunac ahal doazque,
Cein bere herritara,
Gogat eguinic, galduco
Eztutela Escara.

Aspaldion cegoena
Guztientzat azpico
Etcheberric altchaturic
Gorena da iarrico.

Escaldunac hel bequizquit
Haren ohoratcera,
Ceren Escara eman duen
Erdararen gañera.

Irakurle den heinean gaizki-pentsatua ere baden honako sinatzaile honek betidanik uste izan du —eta ez da, inondik ere, bakarra— laudorioa itzuli nahi izan ziola Etxeberri bihurriak Hirigoiti adiskideari, liburua kaleratzeko unean haren identifikazioa ezin modu umoretsuagoan eta, aldi berean, harriagarrian ezarri zuenean: «Doctor Medicus» erantsi aurretik, «Stephanus de *Heriogiti*» inprimatu baitzuen koplak azpiko sinaduran hizki handitan (Etxeberri 1630: 1645, 10; gurea da letra etzana).

⁴ Tartean Tristand Apezte adiskidearenak, esaterako: «Çuri çordun çaitçu Escaldun/ Copla maitaçaillea». Eta lerro batzuk beherago: «Laudorio bada handi/ Duçula Escaldunecz./ Laphurta- rez, bizcaitarrez/ baita Nafar Iruñez» (in Etxeberri 1636: 1665, z.g.).

Akatsa izan balitz, hori behintzat zuzendua zegokeen edizioan; baina itxura guztia du berariaz eginak direla bokal-aldaketa eta metatesia, eta ez zitzaiola burutik pasa zuzentzea, ezta testua kalera aurretik aukera izan zuenean ere.

Beren hizkuntzaren ahalmenean sinesten zuten poeta itsastarren bazkalondoko jolasak, agidanez.

4. Lehor-lehorrekoa jaiotzez, itsasturuak ere ikusmiran izatera bulkatu zuen ofizioak **Estebe Materre** paristarra. Eta horrek erakarri zuen poesiaren besoetara, beste makina bat bezalaxe, obrarik gabeko isilpeko poeta bilakatu. «Car un Poëte Basque —Poissonen euskal poeta urduñarrak zioen bezala— est un Animal rare» (1668: 1687, 1. agerraldia, 197).

Euskal idazleen arteko desohorezko sailkapenetara iritsi gabe ere, konfesatu behar dut betidanik izan dudala aparteko jaidura Materreenganako. Ez ideologikoa, bistan da.

Idazle zuzena eta argia eta euskararen erabiltzaile aparta izateaz gainera,⁵ umore-punttua ere antzeman (nahi?) izan diot nik harenari pasarte batean baino gehiagotan. Haietako bat da, aitortzea zilegi bazait, «*Bekatuetic apartatceco maiz consideratu behar diren pontuac*» atal laburrari dagokiona (1623, 324).

Honela dio paremia moralizante batekin amaitzen den ikasbide honek, oihartzun poetiko frantziskotar-gandiagarrik ere ments ez duenak:

Cer naiz? *Lur*.
 Non nago? *Lurrean*.
 Nondic heldu naiz? *Lurretic*.
 Norat noha? *Lurrera*.
 Noiz harago naiz? *Ezta segurançaric*.
 Nagoen beraz bethi prestic,
 Segurançaric eztenaz gueroztic.⁶

Ez niokeen jolasari erreparatuko, ziur naiz, paradoxikoki —ironikoki?— «Marinelec nola eguin behar dituzten bere othoitçac itsasoan dabilçan demboran» izeneko atal bereziaren aurre-aurrean —pare-parean, alegia, bata ez-kerraldean; eskuinaldean, bestea— paratu izan ez balu gure lehen idazle *euskaldun berriak* «poema» gisara lerrokatuta irudikatu dudana hau. Eta are gehiago: horrekin batera, hain zuzen ere, ardurenik oinen azpian ezegonkorragoa den elementua ohi duten marinelen begien aitzinean *lur* hitza letra-kera etzanez hain markatua utzi izan ez balu.

⁵ Badu, halaber, frantsesez argitaratutakorik ere; sormenaren arloan ausartena, *L'Horloge Spirituel des âmes devotes, & religieuses consacrées au service de Dieu* (Paris, Sylvestre, 1606) delakoa.

⁶ Gurea da hamaika lerroko testua zazpitan hautsita eman izanaren erantzukizun... erdia; beste erdia, agerikoa da, horrela irakurtzeko bidea iradoki zuenari bizkarreratu behar zaio.

Irakurtzen dudan bakoitzean, inpresioa dut *ur*-gizonen irriñoa pizteko eratu zuela jolasa La Réoleko (ez bokalik nahasi, arren!) atezainak.⁷ Besteak beste, suposatzen dut.

5. Materrekin gertatu bezala, zaila ohi da prosaren esparruko itzultzaileen artean poetarik aurkitzea, definizioz baitira, alorreko *eskuarrek* diotenez, kontzeptuok errotik kontrajarriak. Eta inoizka kriptopoesiaren kategorian ezkutaturik aritu arren, poesia agerriki ontzen duenari baino ez zaio poeta-estatusa onesten, ez edonolako liburu mardulak idazten edo, are gutxiago, itzultzen dituenari.

Eta **Joanes Leizarraga** azken moldatzaile horietakoa dugu.

Hortaz, ez-poeta peto bezala igaro da beskoiztarra Poesiaren Historiaren liburura.

Horregatik, horrek zekarkion madarikazioaz garaiz jabetu izan balitz, segurua da inolako konpromiso ideologikorik eskatzen ez zion neurtitzen bat ere utziko zigukeela *Testamentu Berriko* orrialde zorrozki itzulitakoetan tartekaturik. Akaso salmo penitentzialak berak bertso-lerroetaraturik. Oihenartek bere *Arte* poeta-kontsagratzailean aipa zezan, bederen.

Baina ez zen horrela gertatu.

Hori bai, kriptopoesiaren eskolan zaildutako ikasle aurreratuen gisara, ez du faltan ironia eta umore poetikoa islatzen dituen adibiderik ondu zituen leerro larrien artean.

Parentesien barnean dago ezkutaturik haietako bat, Albreteko Joanari paratutako eskaintzan. Izan ere, *Testamentu Berriaren* itzulpenari heltzeko orduko etsipen eta larrialdien erdian, gure Joanesek jakitunen laguntza izateko itxaropenari heldu zion salbamendu-ohol gisara: «ni baino sufficientagoricere içanen cela obràn escu eduquiren luenic» (1571, [*vi] ifr.). Gertatuak ikusita, ironia poetikoaz baliatu zen segidan errealitatea nolakoa izan zen adierazteko eta itxaropen hura zertan gauzatu zen agertzeko: «nola eridenerere içan baita Bearnoco synodoaren ordenançaz lan eguina visitatu eta coneritu behar içan denean» (1571, [*vi] ifr.). Puntu bat gora, errima bat behera, kintakoa ez zuen fraide batek ilunabarreko argia ezkutatzear zegoela egin ohi zuena zeukakeen orduan gogoan Leizarragak: «aita priorrak esan du lana bukatzen duzuenean, askaltzera joan gaitzela guztiok».

Beste adibide bat, berriz, olerkarietako oso gogoko duten arazo batekin lotua azaltzen da. Izatez, Betaniako Mariak afizioz edo zeukan «ofizio»arekin nahasketa teologikorik gerta ez zedin emandako irtenbideaz ari gara (Jn 11, 2). Honako irudi liriko honekin moldatu zuen gure idazleak, frantsesezko *ses*

⁷ Vinsonek jaso bezala (1891: 1984, 53), liburuaren lehen edizioa kaleratu zuen urtean (1617) «le P. Materre était [...] gardien du couvent des Franciscains ou Cordeliers de la Réole (rue des Menus)». 1623an, bigarren edizioaren argitaratze-urtean, Tolosako komentura igorri zuten.

cheveux biluziaren euskaratze hutsarekin bakarrik jolas anfibologikoetarako atea zabalik utz zezakeen pasarte poe[ro]tikoa:

Eta Maria haur cen Iauna unguentuz unctatu çuena, eta haren oinac bere *adatseco* biloez ichucatu cituena (1571, 184 v^o; letrakera etzana ez da gu-rea).

Bistan da: lirikan aritutako sentsibiltate baten hegatsetik baizik ezin isur zitekeen oparia.

6. Maiz kontrastatutako datua da beskoiztarraren izen-izanak besterene-kin nahasteko arriskuarena.⁸

Lekuko bezain jasale, **Joan Perez Lazarraga**, besteak beste. Behin-behinekoa, dena den, arabarrak mendea baizik ez zuen-eta partekatu beskoiztarrarekin. Hori eta, esan bezala, oharkabeko nahasketak ahalbidetu ohi duen deituraren hurbiltasun fonetikoa.

Erdi Aroaren magalean ezteki bizi zitekeen zalduna izanik, erramu-bonetaren deia nabaritu zuen supituki jauregiaren inguruan loreak eta virgoak kolekzionatzen zebilen batean, ongi ohartu baitzen haize berriak iristen hasiak zirela lautada idorreraino.

Eta horrela, zaldun ehiztari saiatu hark kaieratxo bat betetzeari ekin zion bere burua hizkuntza eta kultura erromantzearen zurrunbiloak irentsia ikusi bezain azkar.

Balada bat hemen, inori xurgatutakoaren moldaketa bat hor, amodiozko zera bat han, euskararen kamuste-prozesu galopantearen talaia bilakatu zen gure poetaren obra. Eta besteren freskotasunaren egarria erakutsi arren, kantu monodikoak egiteari eskaini zion sen eta ahalegin oro; hartan espezializatu zen gure zalduna.

Ezkutuko poesiarren kuadrilateroan murgildurik, bada, paper zaharren za-leei zor die Lazarragak literatur liburuetan agertzen hasi izanaren mirakulua. Orain, nonbait, filologia eta kritikaren abiadura gutxiko ebazpenaren zain dago Parnasorako trenean sartu ahal izateko.

Nolanahi ere, aitortu behar da beste aitoren seme zenbaitek baino zorte handiagoa izan zuela arabarrak eginkizun poetikoan. Zuberoako Zalgiz gizaigaixoak, esaterako, atsotitz-biltzaileen hilarri hotza jasan beharko bide du eternitate guztian, nahiz eta, aringarri gisa, izan omen zen poeta pribatua laudatzen duen *hamalaurdun* bat erantsirik eraman gainean.

⁸ Liburu larrietaraino iritsia da nahasteko egoskorkeria. Ez da, adibidez, despropositorik txikiena «*ABC, Edo Christinoen instructionea othoitz eguitemo formarequin* (Rochellan, Pierre Hautin, 1571)» liburua «Lizárraga» [sic] delako bati bizkarreratzea eta, gero, sarrera osoa «Catecismos ortodoxos» azpiatalaren barnean agerraratzea, eta azkenik, hori gutxi bailitzan, «Catecismos españoles del siglo XVI» izeneko atal ponpoilduan sailkaturik ematea (Resines 1997, 195).

7. Burutu nahi izan zuen obraren izaerak berak lagundurik, besterena baino askeago ibili zen letra-munduan **Axularren** hegatsa. Prosa kontrarreformistan jardun bazuen ere.

Nik dakidala, ikasle oharkaberen baten edo besteren kurtsu-amaierako azterketan baino ez zaio aitortu urdazubiarrari poetaren estatusa.

Nolanahi ere, zinez berretsi behar da haren prosa soinudunak —are, musikaldia maiz asko—, haren jolas erritmikoez, jarraikako perpausen arteko paralelismo isosilabikoez, prosa lehorrenean ere homofonia distiratsuak tartekatzeke zaletasunak eta beste hainbat ezaugarri nabarmen erakusten dutela poesia ezezagun ez duen baten sentsibilitatea.

Eta inori arraro bezain estrainio egin balekioke ere, aitortu behar da Axularren orrialdeek ez dutela ments parametro modernoetan poetiko gisakotzat edo irudikatu ohi den lerro lehorrik.

Hainbat adibide ekar liteke horren lekuko. Hemen bat besterik ez dugu oroitaraziko, ordea. Bibliatik jasotako pasarte batean datza, hain zuzen ere, deabru bezala ezagutzen dugun *Luziferren* izena lehen aldiz agertzen den hartan (Isaias 14, 12).

Honela dio profetaren testuak Estridongo Jeronimoren latinezko bertsioaren arabera: «Quomodo cecidisti de caelo Lucifer qui mane oriebaris».

Arrazoi terrenalak ez dakizkigula (ohore gehiegi, agian, aingeru ohi mardikatu batentzat?), «de caelo» delakoa moztu zien Axularrek latinezko aipuari eta euskarazko itzulpenari:

Nola erori [sic] cinen lucifer? Nola erori cinen, artiçarra, goicean goiz, oillaritean sortcen eta ilquitcen ohi cinena? Hain gora ceneundecina? (1643, 140).

Errorea gorabehera, Axularren testuaren itzal faltarik ere ez duen Duvoisinaren itzulpen hertsia har daiteke konparaziorako (*Bible*, II. lib., 750):

Nola erori haiz zerutik, Luzifer, goizetan goizik ilkhitzen hintzena?

Baina ez du iruzkinik behar testuak, berez mintzo baita. Deabru gaizto bilakatua zen aingeruaren izenaren jatorrizko esanahi etimologiko-poetikoa-ekin (hots, *argiaren ekarle*) jolasten du Axularrek goizeko izarraren aipamena (*artizarra*) aposizio gisa tartekatzean eta *oillaritearen* irudi konnotatibo propioan kokatzean.

Axular ere poesiaren esparruan kukuka, nonbait; poesia serioaren esparruan kukuka alegia,⁹ argi baitzeukan «escusatu behar dir[el]a eta *guibelatu hitz alferrac, arinac* [...]» (1643, 396; gureak dira letra etzanak).

⁹ «Nigar hec, arrosac dira elhorrien artean. Egur heceac eguiten du gar, eta eguiten du nigar: sua datcheca, eta ura dario» ausartzen da idaztera beste toki batean ere (1643, 501).

Baina meharra ere bazen, aldi berean, urdazubiar sinonimozalea, lar mehar-idorra oro har sormenezko literaturan aritzeko, eskusatu eta gibelatu beharreko zatitza baitzituen «*iocolariac, dostaiilluac*, eta guztien gaiñetic desonhestac, vanoac eta erguelac» diren hitzak ere (*idem*).

Eta are: Etxeparek ez bezala, estuegiak zituen zain-azalak funtsezko eginkizun poetikoan ezinbesteko diren une ludikoetarako ere:

Erraiten duçu: *deçagun dembora iragan, gaitecin ioca, gaitecin dantça eta dosta*. Eta etçaitçu gogoratcen bitartean dembora galtcen duçula (1643, 161).

Gure lehen poeta aitortuaren tesien arbuio zuzena, beraz:

[...] igorten darauritzut heuscarazco copbla batzu [...] *plazer harceco, solaz eguïteco, cantatzeco eta denbora igaraiteco* [...] (1545, A2).

Ez baitagokio, ez, jende larriari poeta gisa aritzeko jolasa; are gutxiago, larritasun hori poesía-lehiarako ezin egokiagoak diren maitasun-koaitak, sexu-hausteak eta alaitasunak bekatu bilakatzen dituen janzkera karsoilduaz belzturik kaleratzen bada.

Baina auskalo! Agian, gorago aipatu poeta urduñarraren bulkada bezalako baizik ez zuen ments izan urdazubiarrak lirikan barna abiatzeko (Poisson 1668, 4. agerraldia, 203):

GODENESCHE:

Je ne suis mal-heureux que faute de vertu.
Que ne suis-je Poëte?

LE POETE:

Et bien, que ne l'es-tu?

8. Prosaren sailik lehorrenetan aritua, gutxienik beste edonor —tartean, Leizarraga edo Axular bera— bezain olerkari agertzen da **Joanes Haranburu** ere sen literarioa datorkionean.

Materreneretik «edoski» zuen batean, esaterako, etorri poetikoaren distirak berak lausotu zuen —gutxitxo, baina lausotu, edozein modutan ere— xurgatutakoaren jatorria.

Honela idatzia zuen Materrek bere *Dotrina Christiana* liburuaren bigarren edizio aberastuan:

Gero har ezazu ur benedikatua, erraiten duzula: *Garbi nazazu, Jauna, zeure garaziaren uraz, eta eginen da ene arima elurra bezain zuri* (1623, 191-192).

Lirikara emanago nonbait —nahiz eta, adierazi bezala, ez zen genero hori predikarien gogokoena—, honelaxe ondu zuen hitz laua Haranburuk:

Ur benedikatua hartzean: *Garbi nazazu, o Jauna, zeure garaziaren ihintzaz, eta elurra baino zuriago izanen naiz* (1635, 278).

Ezbairik gabe baieztatu daiteke *uraren* erredundantzia saihestera zetorren *ihintzaren* transmutazio hura izan zela Haranburuk prosa poetikoari egin zion ekarpenik larriena. Hori baino ez, edo, sentsibilitate maltzurren batek esango zukeen bezala, hori guztia.

Nolanahi ere den, ez da ahaztu behar poesiari, ez prosari, zor diola sarrarrak Literaturaren Historia nagusian hartu duen tokia.

Oihenarti esker, dena esateko. Edo hobeto adierazita, Oihenartek ziurtzat hartua zuen aieru huts bati esker.

Mauletarrak, izan ere, egiazki pentsatu zuen pertsona baten izen-deiturak buruan zeramatzan liburu baten barruan zegoen guztia pertsona horren hegatsetik sortua zela oso-osoan. Alegia, obran idatzitako guztiaren egilea dela azaleko kredituetan agertzen dena.

Eta ondorioz, Oihenartek baietz pentsatu zuen, Haranbururena berarena zela haren *Debocino escuarraren* barnean bertotan kaleratu zen *Zazpi Salmo penintzentzialak* izeneko atalaren aitatasuna.

Eta horrela islatu zuen kontua bere zahartzaroko kumea zen *Euskal Arte Poetiko* hartan (1665). Islatu, goraiatu eta, hori gutxi bailitzan, obra urriegiko —eta, berak aitortu bezala, errima ez erregularregiko— autorea gainontzeko garaikideen gaineko poetatzat laudatu.

9. Susmatzekoa da arin eta inozo jokatu zuela sententasunean sartua zegoen mauletari historialariak harako hartan, berak liburuak eta idazkiak ontean egiten zuena (izenpetu eta barruan zegoen guztiaren erantzule azaldu) ez baitzen beste autoreetan zertan gertatu; ezinbestean, bederen.

Baina zalantza gutxi dago, izan ere, Haranbururen *Debocino escuarraren* barnean bertotan dagoen atal haren egiletzaz.

Haurdunaldiaren erritmoari lehenik, eta orobat aitaren gainerako seme-alabei begiratzea besterik ez zegoen benetako sortzailearen aurpegia irudikatzen hasteko.

Zeren alaba poetiko hura erraz asko izan zitekeen beste guraso batek ernaldua eta munduratu. **Kristobal Harizmendi** adiskideak, esaterako.

Taxuzko errimatan jarritako zazpi salmo haiek ez ziren lehen edizioan munduratu —jakina den bezala, argitalpen hura Haranbururena baitzen oso-osorik—, 1642ko galduan¹⁰ edo handik aurreragokoetan baizik.¹¹

¹⁰ Desagertu den arren, ziur da 1648koa baino lehenagokoa dela bigarren edizio hau, urte hartan hil baitzen liburuaren jasotzaile eta babesza zen Salbat Ihartzte, eta Haranburuk moldatutako hitzaurre berrian bizirik dagoela adierazten du.

¹¹ Edizioen auzian, Vinsonena dugu testigantza fidagarriena. Honako hauek dira, haren ustez, Haranbururen *Eskuarrak* izan zituen edizioak (desagertuak, parentesi artean): 1635, [c.1642], [c.1660], c.1690a eta c.1690b (ikus haren «Additions et corrections» ataleko zuzenketak [Vinson 1898: 1984, 540-541]).

Alabaren begitartea, tankera eta maina jentilak ikusita, ez da zalantza-izpi gehiegirik geratzen poema hura Harizmendik Haranbururen liburua goitik behera berritzeko hartu zuen askatasun berberarekin ernatua eta erditua izan zela pentsatzeko.

Beraz, Oihenartek Haranbururi bizkarreratzen dionean errimak egokiro burutzeko trebetasuna, ez zuen besterik egin irakurri zuen «poema» luzea liburuaren egileari berari egozte baina. Halere, estiloak, errimak eta estrofa motak Harizmendiren jolasa erakusten dute, bete-betean. Eta horren froga bat besterik ez da Vinsonek aipatzen duen *Te Deumaren* erabateko «kointzidentzia».

Ezin jakin umegintza-bide berekoa ez ote zen gertatu, halaber, Haranburuk *eskuarraren* lehen edizioan prosazko tankeran eman zituen 6/7a molde harrigarriko laukoan (idatziz, 13a/13a ereduko distiko bezala edo identifikatzea daitezkeenak) eta bertsoen moldaketa berria ere. Harizmendik liburuari emandako orkoiaren bidez ezagutzen ditugun bertso berriztatu haiek 8/7a eredukotzat agertzen zaizkigu 1660(?)tik aurrera, garai berean moldatzaileak ondu eta kaleratu zuen *Ama Viginaren hirur Officioac* liburuan erabili orkoi eta neurkera berekoak.

10. Euskal letren baratzean ezagutzen diren salaketa-lerrorik poetikoenak —baldin bertsoan jarriarik egotea bera ez bada poetikotasunaren aurkako traiziorik doilorrena— eta ideologikoki zintzoenak **Joan Klaberiaren** eskuak idatziak dira.

Laukotan taxutuak, honela salatu zituen Klaberiak letratu erdaltzaleen ordezkariatzat zituen euskaldun unibertsalak (in Etxeberri 1636: 1665, z.g.):

Burlatcen naiz Garibaiez
Bai halaber Etchabez,
Cenac mintçatu baitire
Erdaraz Escaldunetz.

Ecen cirenaz guerostic,
Escaldunac hec biac,
Escaraz behar cituzten
Eguin bere historiac.

Zehatzagoak agian bai (deiturak erakutsiz), baina Etxeparek hitz lauz egindako kritikaren esparruko parametroak, azken buruan:

Ceren bascoac baitira abil, animos eta gentil, eta hetan içan baita eta baita sciencia gucietan letratu handiric, miraz nago iauna nola batere ezten assayatu bere lengoage propriaren favoretan heuscaraz cerbait obra eguitera eta scributan imeitera, ceren ladin publica mundu gucietara berce lengoagiac beçala hayn scribatzeco hon dela (1545, A2).

Baina trufaz gainera, Klaberiak eskainitako hartan inor gutxik ikusi nahi izan zuen —ez orduan, ez gero— zinezko proposamen trinkorik. Ez eta mo-

rrontza linguistiko-kulturaletik ateratzekorik, edota hizkuntzaren erabilera eta normalkuntza ziurtatzeko balio zezakeenik, edo jakintza-arlo zenbaiten jorraketa bidera zezakeenik edo, zergatik ez, poesiaren garapenerako ere planteatu zitekeen egitasmorik. Salaketa eta iseka, beraz; eta era berean hautu ideologiko kontziente eta esplizitua, Uriel Weinreichek *language loyalty* deritzonaren ildokoa.

Baina hartan ere letratu handiak izan bide ziren itsuenak eta sentsibilitate kamutsenekoak.

11. Baldin ikusi nahi izan baleza, **Arnaut Oihenartek** ere aprobetxa zezakeen bertso-lerro haietan zetzan proposamena. Baina albisteez diotenez, berandu jaio zen mauletarra letren mundura.

Eta horrek libratu zuen, orobat, Klaberiaren oldarrean deiturekin agertzetik.

Guztiarekin, eta beranduago etorri izanagatik ere, ez zituen Oihenartek irakurri nahi izan bere hizkuntz jokamoldea hankaz gora jar zezaketen koplak bihurri haiek. Edo, beharbada ziurrago, irakurri edota entzun bazituen, gorretik egin zien zeharo, zahartzaroaren lasaia ozpin ziezaiokeen sabelmina saihestu ahal izateko.

Aski eta asko izan zuen aukeratutako jakintza-arloa zehatz-mehatz eta hizkuntza kultu(et)an jorratzearekin. Eta, aldi berean, despresurizatze-libertimendu modura edo, musen aterpean bertako mintzairan saiatzearekin. Hori bai, sentsibilitate aristokratikoa izanik, baxu eta lahartsu iritzi zion euskal profeten proposamenaren poesi inguruneko gehienari, eta ondorioz, bere garaikide jasoen mailako izan zitezkeen jolas molde bertutetsuei heldu zien azkar baino azkarrago. Eta baita ordura arteko langa txatxarrak gaintitu ere! Eskalimetroari esker izan bazen ere.

Nolanahi ere, inguruko gizatalde elebakardunaren premietatik¹² urrunko ziren berrikuntza haien funtsezko gakoa bilatzen hastekotan, Thorstein Veblen soziologoak judutarrek mendebaldeko kulturaren zuten eragina ulertzeko proposatu zuen eskemara jo liteke beharbada. Horrela balitz, haren arabera irakur genitzake mauletarraren —eta beste hainbaten— sentsibilitatea, jokamoldea eta obra ere.

J.L. Borges-en lumatik isuriak dira hitzok:

[judutarrak] sobresalen en la cultura occidental, porque *actúan dentro de esa cultura y al mismo tiempo no se sienten atados a ella por una devoción*

¹² Erabakitze dago noraino oharitu ote zen Oihenart gaitzetsitako bertso-ereduak betetzen zuen gizarte-funtzio zehatzaz eta, garatutako mamia gorabehera, ahozkotasanaren kulturaren murgilduta zegoen gizataldearen beharrei ematen zien erantzunaz. Erabakitzeko, oro har, eskolatu gabeko ustezko literatur hartzaileen komunitate batean (kutatzen ere hala-hola zekikeena), zenbateraino joan zitekeen *arte poetikoa* enuntziatuak bideratu, kontrolatu eta oroitzeko oinarritzko baliabide poetiko-musikalak eskaintzetik haratago.

especial; «por eso —dice [Veblen-ek]— a un judío siempre le será más fácil que a un occidental no judío innovar en la cultura occidental». (Borges 1989 [1932], 272-273; gureak dira letra etzanak).

Atxikimendu ezagatik, beraz, eta besteren ustezko arinkerien aringarri gisara, ezin hobeto ondu zituen berak silaba eta erdiko errimak nahitaezko omen zituzten neurtitz haiek eta, horri aski ez iritzirik, molde matematiko perfektuetan ezarri zituen gero lerroalde guztiak.

Antze horrek jarri zuen gure historialaria Parnaso gaineko zutabe garaie-naren goi-erpinean. Eta basa-sentsibilitatetik urruti aritzean eta aritzeagatik, euskal poeta gailentzat homologatzea erabaki zuten olerkari zapuztu omen diren literatur historiaren ehuleek.

Eta baita, agian, Borgesek erakutsi zuenaren ildotik abiatu zelako —*avant la lettre* izan bazen ere— mauletarra:

por eso repito que no debemos temer y que debemos pensar que nuestro patrimonio es el universo; ensayar todos los temas, y no podemos concretarnos a lo argentino (Borges, 1932:1989, 273-274).

«Ni a lo vasco, maestro» xuxurla lekiok orain apalki belarrian, inork ez baleki euskal jatorri lausoko argentinarra, 1976ko uztailean bere herrikideek berrehun urteko diktadura behar zutela zioen hura bera,¹³ zein aiher zitzaion euskal jende orori. Haren aitzineko —barka, otoi, oximoronaren ahulezia— jarraitzaile izan zen Oihenart neurtizgile betegina Ziburuko apaiz doktoareari eta hura bezalako bertsogile oiesei arlo poetikoan —arlo poetiko hutsean— zitzaienaren adinakoa, seguruenik.

2014ko buruilean, Aramaion

Aipamenak

Axular (Agerre, Pedro). 1643. *Gero*. Bordele, G. Milanges [http://klasikoak.armiarma.com/faksimileak/17/AxularGero.pdf].

Borges, Jorge Luis. 1989 [1932]. «El escritor argentino y la tradición». *Discusión. Obras completas*. I. Bartzelona: Emecé, 267-274.

Duvoisin, Jean (itzul.). 1859-1865:1972. *Bible Saindua edo Testament Zahar eta Berria*. Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca.

Ettxepare, Bernard. 1545. *Linguae Vasconum Primitiae*. Bordele: F. Morpain [http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/btv1b8609513p.r=Linguae+Vasconum.langEN]

¹³ Videla militar kolpistak hiru hilabete luze zeramatzen Argentinan «lehendakari», Borgesen sentsibilitate lirikoak honako listukada hau jaurti zuenean: «[...] creo que por el momento necesitamos unos 200 años de dictadura, y después, desde luego, bastante más civilizados, prescindir del gobierno» (apud Neustadt 1976).

- Etxeberri «Ziburukoa», Joanes. 1627: 1669. *Manual devotioñezcoa*. Bordele: Mongiron Millanges [<http://klasikoak.armiarma.com/faksimileak/17/EtxebZibuManual.pdf>]
- Etxeberri «Ziburukoa», Joanes. 1636: 1665. *Eliçara erabiltceco liburua*. Bordele: Mongiron Millanges [<http://klasikoak.armiarma.com/faksimileak/17/EtxebZibuElizara.pdf>]
- Etxeberri «Ziburukoa», Joanes. 1630?: 1645. *Noelac eta berce canta espiritual berriac*. Baiona: Maffre [<http://klasikoak.armiarma.com/faksimileak/17/EtxebZibuNoelak.pdf>]
- Haranburu, Joanes. 1635. *Debocino escuarra, miraila eta oracinotegua*. Bordele: P. de la Court [<http://klasikoak.armiarma.com/faksimileak/17/HaranburuDebozino.pdf>]
- Harizmendi, Kristobal. 1660. *Ama Viginaren hirur Officioac*. Bordele: G. de La Court.
- Leizarraga, Joanes (itzul.). 1571. *Jesus Christ gure launaren Testamentu Berria*. Arroxela: P. Hautin [http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/mono/leizarraga/leizarraga_biblia.pdf]
- Materre, Estebe. 1623. *Dotrina Christiana*. Bordele: J. Millanges [<http://klasikoak.armiarma.com/faksimileak/17/MaterreDotrina.pdf>]
- Navagero, Andrea. 1563: 1718. *Il Viaggio fatto in Ispagna, ed in Francia*. In *Opera omnia*, Padua: J. Cominus. 337-419.
- Neustadt, Bernardo. 1976. «Entrevista a Jorge Luis Borges». *Revista Extra* 133 [http://www.bernardoneustadt.org/contenido_150.htm]
- Oihenart, Arnaud. 1665: 1967. *L'Art Poétique Basque d'Arnaud d'Oyhenart*. Baiona: Gure Herria.
- Perez Lazarraga, Juan. c.1567: 2014. *Lazarraga eskuizkribua. Edizioa eta azterketa*. [<http://www.lazarraga.com>]
- Poisson, Raymond. 1668: 1687. *Le Poëte Basque*. In *Les oeuvres de Monsieur Poisson*, Paris: T. Guillain. T. II, 193-233 [<http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k57731w.r=Poisson%2C+Raymond.langFR>]
- Resines, Luis. 1997. *La catequesis en España. Historia y textos*. Madril: BAC.
- Vinson, Julien. 1891 & 1898: 1984. *Bibliographie de la Langue Basque*. Donostia: J. Urkixo Mintegia & Gipuzkoako Aldundia (erabili edizioak 1891ko *Essai d'une Bibliographie...* eta 1898ko *Complement et supplément* delakoa eskaintzen ditu).